


Euskal AEko txikizkako sektorean salmentak %0,8 gehitu ziren 2019ko bigarren hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, %0,7 gehitu ziren prezio finkoetan

Eustaten arabera, 2019ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak %0,8 gehitu ziren prezio finkoetan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, salmentak %0,7 gehitu ziren urte arteko tasan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %0,1 erreala gehitu da, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreka, elikagaien salmentak %1,8 gehitu ziren 2019ko bigarren hiruhilekoan, baina gainerako produktuenak %0,2 jaitsi ziren; automobilgintzarako erregaiarenak %1,0 hazi ziren, beti ere 2018ko aldi beraren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %1,0 gehitu zen; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, %2,2.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan zeinu ezberdineko aldakuntzak daude azpisektoreetan. Etxeko ekipamenduan espezializatuan %2,9ko gehikuntza izan da eta kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %1,6koa, baina pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,3ko jaitsiera gertatu da eta, azkenik, gainerako

produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %1,8ko murrizketa, den-dena prezio finkoetan.

Salmentak hiru lurraldeetan gehitu dira urte artean: Araban %1,5eko igoera izan da, termino errealetan, Bizkaian %0,7koa eta Gipuzkoan %0,6koa, 2018ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Euskal AE osoan, 2019ko bigarren hiruhilekoan, txikizkako merkataritzako sektorean okupatuen kopurua %0,1 gutxitu da aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatua eta %0,1 ere jaitsi da 2019ko lehen hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. II/2019

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera		
Euskal AE	0,8	0,1
Araba/Álava	1,5	-0,1
Bizkaia	0,7	0,0
Gipuzkoa	0,6	0,2
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera		
Elikagaiak	1,8	0,6
Elikagaietan espezializatuta	1,0	0,5
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	2,2	0,0
Beste produktuak	-0,2	0,1
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-2,3	-0,8
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	2,9	0,7
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	1,6	0,2
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-1,8	-1,0
Automoziorako erregaia	1,0	0,2
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	0,7	0,4
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE	-0,1	-0,1

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62